



1/2024 LEGEA, ENERGIA TRANTSIZIOAREN ETA KLIMA ALDAKETARENA ENPRESENTZAKO OHIKO GALDERAK

1. ZERGATIK BEHAR DU EUSKADIK ENERGIA TRANTSISIZIOAREN ETA KLIMA ALDAKETAREN LEGEA?

Atmosfera berotzen ari da, gure ingurumenerako eta gure gizarteetarako ondorio larriak eraginda. **Munduko tenperaturaren igoera mugatzeko eta industriaurreko garaiarekin alderatuta 1,5 °C baino gehiago igo ez dadin**, eta klima aldaketaren ondorio negatiboak murrizteko, Planetak oso azkar murriztu behar ditu klima berotzen duten berotegi efektuko gasen (BEG) emisioak, hemendik 2050era CO2 emisio garbiak zero izatea lortzeko.

Ikusita datu zientifikoak, klima aldaketaren ondorio negatibo gero eta nabariagoak eta larriagoak eta herritarrek jarduketa irmoago baten alde egindako eskaerak, premiazkoa da **neurri gehiago** hartzea, bai arintzeari dagokionez, bai egokitzapen klimatikoari dagokionez.

Europak arau klimatiko handinahiak ezarri ditu, eta ekonomia eraldatzen hasi da, helburu klimatikoekin bat etorritz. Euskadik, Europaren ildotik, 1/2024 Lege horretan ezartzen du, helburu gisa, 2050erako berotegi efektuko gasen isurketa garbiak zero izatea, 2045ean neutraltasun klimatiko hori lortzeko beharrezkoak diren ahaleginak eginda.

2. ZEIN DIRA LEGEAREN HELBURUAK?

Hauek dira Legeak ezarritako helburu nagusiak:

- Euskadin neutraltasun klimatikoa beranduenez 2050ean lortzea, 2045ean lortzeko behar diren ahaleginak eginda
- 2030ean BEGen isurketak 2005ekoak baino %45 gutxiago izatea
- Energiaren azken kontsumoan gutxienez %12 aurrezteak 2030ean, 2021ekoarekin alderatuta



- 2030erako azken kontsumo energetikoan energia berriztagarrien parte hartzea gutxienez %32 izatea.
- Lurraldeak klima aldaketarekiko duen erresilientzia handitzea

3. NOLA LOR DEZAKE EUSKADIK BERE EKONOMIA DESKARBONIZATZEKO HELBURUA?

Legeak deskarbonizazio prozesua bultzatzen du, euskal sektore sozioekonomiko guztietan trantsizio energetikoa erabiliz. **Deskarbonizazio prozesua sustatzen du jarduera ekonomikoa, enpresa lehiakortasuna, enpleguaren kalitatea eta gizartearen ongizatea areagotuta**, garapen jasangarriko eredu baten esparruan ingurumenaren, gizartearen, ekonomia jasangarriaren eta inklusioaren ikuspuntuetatik.

Deskarbonizazio prozesu horrek **ekonomia zirkular baterantz** egin behar du, garapen teknologikoan eta industrialean oinarritutako euskal enpresaren **lehiakortasuna bultzatzeko** sortzen diren enpresa aukerak aprobetxatuz.

Azken batean, **Lege hori da** isuriak murriztuz, trantsizio energetikoaren bidez eta ekonomia zirkularra sustatuz **enpresei klima aldaketa arintzeko politikak bizkortzea ahalbidetuko die konpromiso sendo eta borondatezkoa.**

4. ZERGATIK BULTZATZEN DU LEGEAK KARBONO AZTARNA ETA EKONOMIA ZIRKULARRA EUSKAL ENPRESETAN?

Industria sektoreko Berotegi Efektuko Gasen zuzeneko isurketak, elektrizitateari lotutakoekin batera, guztizko isurketen %30 dira, eta nabarmendu behar da 2005etik bere isurketak %35 baino gehiago murriztea lortu duela.

Prozesu industrialetan ekonomia zirkularra bultzatzeak energia kontsumoa murriztea, lehengai berri gutxiago erabiltzea eta, azken batean, horien ingurumen aztarna murriztea ahalbidetuko du. **Enpresan, ekonomia zirkularreko neurriek lehengaien kontsumoa %7 baino gehiago murrizten laguntzen dute, eta BEM isurketak %30-%50 gutxiago izaten.**

Legeak, 32. artikuluan, **instalazio industrialak behartzen ditu beren karbono aztarna kalkulatzera eta aztarna hori murrizteko plan bat prestatzera.** Erregelamenduz ezarriko da zer instalaziori eragiten dion betebeharrak, zer irismen duen karbono aztarnaren kalkuluak, zer jasoko duen gutxienez planak, zer epetan idatzi beharko den plana eta zenbatean behin eguneratu behar den.



Ihobek, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak, [karbono aztarna hori kalkulatzeko lagunduko duen tresna sinplifikatu](#) bat jarri du euskal enpresen eskura.



CLIMATE &
CIRCULARITY
CALCULATOR
by ihobe

5. ZERGATIK DA GARRANTZITSUA KARBONO AZTARNA KALKULATZEA ENPRENTZAT?

Lege berriak ezartzen du euskal administrazioak prozesu industrialak deskarbonizatzeko neurriak bultzatu ditzala, hala nola: efizientzia energetikoa, elektrifikazioa, hidrogeno berdea eta energia alternatiboko iturrien erabilera sustatzea; ekonomia zirkularra bere prozesuetan sartzea, energiaren kontsumoa murriztera eta lehengaien erabilera eta horien karbono aztarna murriztera bideratua; ingurumen ziurtagiriak sustatzea, bereziki **Karbono Aztarna erakundeentzat eta Ingurumen Aztarna produktu eta zerbitzuentzat**.

Karbono aztarnak kalkulatzeko dituzten erakunde bati edo produktu edo zerbitzu baten bizi zikloari lotutako berotegi efektuko gasen isurketa guztiak. Haren kalkulak isurketak murrizteko plan bat ezartzea ahalbidetzen du, klima aldaketa arintzen eta ingurumen inpaktu negatiboak murrizten laguntzeko, eta, gainera, lehiarako abantaila bat da, efizientzia hobetu, markaren ospea indartu eta araudia betetzen eta jasagarritasunerantz eboluzionatzen ari den enpresa ingurune batera egokitzen laguntzen baitu.

6. ZER DA TRANTSIZIO ENERGETIKOKO ETA KLIMA ALDAKETAKO EKIMENEN EUSKAL ERREGISTROA?

Legeak ezartzen du erregistro hori sortuko dela, non jarduera publiko edo pribatuen titularrak doan inskribatuko diren, **ekintza klimatikoaren arloan beren gain hartutako konpromisoak jendaurrean ager daitezzen**. Borondatezkoa izango da, dagokion erregelamenduaren garapenean ezartzen diren jardueretarako izan ezik.



Erregistroak, besteak beste, karbono aztarna xurgapenen bidez konpentsatzeko inskribatutako erakundeek egindako ekintzak edo klima aldaketara egokitzeko garatutako ekintzak inskribatzeko atalak izango ditu.

7. ADMINISTRAZIOAREKIN KONTRATATZEN DUTEN ENPRESENTZAKO BETEBEHAR BERRIA

Euskal administrazio publikoetako eta sektore publikoko gainerako erakundeetako **kontratazio organoek produktu, zerbitzu eta horniduretako karbono aztarna izateko betebeharra txertatuko dute** beren kontratuen administrazio klausulen eta baldintzen **agirietan**, betiere betebehar horrek kontratuaren xedearekin lotura badu.

Gainera, administrazio publikorako **erakunde lizitatzailleak produktuen, zerbitzuen eta horniduren karbono aztarnaren xedapena justifikatu ahal izango du**, **Energia Trantsizioako eta Klima Aldaketako Ekimenen Euskal Erregistroan inskribatuta dagoela** egiaztatuz.

Betebehar hori erregelamendu bidez ezartzen den epean jarriko da indarrean.

8. LEGEAK FISKALITATE ENERGETIKO-KLIMATIKOA BULTZATZEN DU. ZER DA HORI?

Legearen 59. artikulua nabarmentzen du euskal administrazio publikoek energia trantsizioaren eta klima aldaketaren arloko fiskalitatea sustatuko dutela. Horretarako, alde batetik, **isurketak arindu, murriztu eta xurgatzen laguntzen duten jardueretarako pizgarri fiskalak bultzatuko dira**, bai eta **klima aldaketara egokitzen laguntzen dutenak ere**, adibidez, **prozesu eta teknologia garbien kenkari fiskalak** sustatuz eta bultzatuz. Bestalde, berotegi efektuko gasen isurketak handitzen dituzten jarduketan gainera karga jakin batzuk ezartzea baloratuko da.

Fiskalitate energetiko-klimatiko horrek honako hauek sustatuko ditu: energia berriztagarriak, sareen deszentralizazioa eta autokontsumo energetikoa, energetikoki efizienteak diren eraikin eta etxebizitzak, mugikortasun jasangarria, ura aurrezteak, ekipamendu efizienteagoak, ekoizpen prozesuak aldatzea, ekonomia zirkularreko ereduak bultzatzea, hondakinak sortzeari eta horien balorizazioari aurrea hartzea, eta basogintza eta nekazaritza kudeaketa jasangarria.



9. EUSKAL EKONOMIA ETA ENPRESENTZAT ERAGIN POSITIBOA DUEN LEGEA

Euskadi da trantsizio energetiko eta klimatiko honetan aitzindaria, eta horrek egiten du ekonomia lehiakorrago eta klimatikoki neutroago baterantz **aldatzeko palanka** izatea. **Karbonoan neutroa den ekonomia bati buruzko nazioarteko txosten batzuen arabera, %1,5 eta %2,9 artekoa da 2050eko BPGan izango duen eragin positiboa.**

Egia da legeak betebeharrak ezartzen dituela enpresentzat, hala nola karbono aztarna kalkulatzeko eta hura minimizatzeko plan bat egitea, baina, ekonomiaren deskarbonizazio prozesuan aurrera egiteko, **euskal administrazio publikoek** jatorri berriztagarriko **erregai alternatiboak sortzen lagunduko dute**, eta **inbertsio beharren eta energiaren kostuan izandako igoera handien inpaktua arintzeko neurriak sustatuko dira.**

Neutraltasun klimatikorako trantsizioak **aukerak** eskaintzen ditu **industria sektore estrategikoak garatzeko, hala nola energia berriztagarriak, hidrogeno berdea eta energia biltegitratzea bere balio kate osoan.**

Hitz batean, trantsizio energetiko eta klimatikoak, arriskuak ekarri arren, aukera nabarmenak emango ditu euskal **enpresen lehiakortasuna bultzatzeko**, garapen teknologikoan eta berrikuntzan oinarritutako eraldaketa baten bidez, **balio erantsi handiko** enpresa jarduera ekonomiko berria sortzeko.

10. NON ESKURATU DEZAKET DESKARBONIZAZIOAREN ARLOAN DAUDEN LAGUNTZEN GAINEKO INFORMAZIOA?



<https://www.eve.eus/Programa-de-ayudas/2020.aspx>



<https://www.spri.eus/es/ayudas/>



Eusko Jaurlaritzaren harremanetarako erakundeak



■ 944 23 07 43
[+ Info](#)



■ 944 035 600
[+ Info](#)



■ 944 03 70 00 / 900 92 93 93
[+ Info](#)

Ezagutu Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren otsailaren 8ko 1/2024 Legearen testua

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2024/02/2400901e.pdf>